

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

BIZIKIDETZA LANTZEN

Bake, bizikidetza eta giza eskubideen
udal politikak sustatzeko foru programa

I.g.: SS-117-2017



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

**Bake, bizikidetza eta
giza eskubideen udal politikak
sustatzeko foru programa**

BIZIKIDETZA LANTZEN



1. Sarrera

2011ko urrian, ETaren terrorismoa amaitu zela iragarri zenetik, aro berria zabaldu da euskal gizartearen historian. Bakea nagusitu egin da eta, horrekin, agendan lehen lerroan jarri da bake ezak utzitako arazoak. Sufrimendu ezbidetzko eta izugarria ez ezik, indarkeriak hainbat arazo larri utzi ditu, iraganari lotuak, orainean eta etorkizunean eragin negatiboa dutenak.

Hamarkadak izan dira terrorismo, indarkeria, giza eskubideen bortxaketa, zatiketa eta saminarekin bizitzen eman ditugunak, eta izugarri zailak diren hainbat gai utzi ditu mahai gainean ebazteke: biktimen beharrei eta eskubideei erantzun beharra, iraganaren memoriaren kudeaketa, bizikidetzaren gizarte urratuak, kartzela politika, elkarbizitzaren normalizazioa, hezkuntza...

Foru eta udal eremuko erakundeok bizikidetzaren eskuratzen lagundu behar dugu, ardura partekatu baten ikuspegitik. Hor kokatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideetako zuzendaritzaren Jarduera Plana legealdi honetan.



2. Ardatz gidaria: giza duintasuna

Giza duintasuna da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarria. Giza eskubideetan heztea tresna estrategikoa da eskubide horiek lortzeko, Nazio Batuen Batzar Nagusiak berak esan duen bezala. Giza eskubideen pedagogia bat sustatzea, giza duintasunaren hezkuntza esperientziaren sustapenean oinarritua, zeharkako ardatza da jarduera plan honetan. Aurreikusi diren jarduera guztien xedea da ezagutza, begirune eta giza duintasun eta giza eskubideen sustapenean heztea.

3. Bost printzipio bost konpromisorako

. Giza eskubideak.

Giza eskubide guztien eta horien oinarria den giza duintasunaren defentsaren konpromisoa. Oinarria da ETaren indarkeriaren bidegabekeria esplizituki onartzea, baita giza eskubideen bortxaketa guztiak ere, egileak talde terroristak, Estatua, segurtasun indarrak edo talde para-polizialak izan.

. Biktimak.

Biktima guztien eskubideekiko konpromisoa. Foru eta udal eskumenen aukera eta mugetatik, egia, justizia eta erreparaziorako eskubideei erantzutea, zeinak, salbuespenik gabe eta berdintasun eta ez bazterketaren printzipioaren pean, giza eskubideen bortxaketen biktima guztienak dira.

. Memoria

Iraganarekin kritikoa den memoria politiko batekiko konpromisoa. Elkarriketan oinarritutako memoria politikan lankide izatea, bizikidetza demokratikoari begira, aniztasunari begirunea dion bati begira, biktimen sufrimenduarekin solidarioa dena eta irmoa giza eskubideen aurkako eraso ororen salaketarekin.

. Normalizazioa

Normalizazio sozial eta politikoarekiko lehentasunezko konpromisoa. Elkarrekiko begirunean oinarritutako elkarbizitza aktiboki sustatzea. Hezkuntza, gizarte, politika eta erakunde ekimenen bidez, bake kulturaren eta indarkeriaren eta gatazka suntsitzaileen prebentzioaren pedagogia egitera begira.



. Gizarteratzea

Presoen legezko eta konstituzioz onartutako gizarteratzearekiko konpromisoa. Kartzela politika berri bati babes ematea, elkarbizitza politikaren lege printzipio eta printzipio humanitarioetan oinarritua, eta legeak aurreikusten dituen gizarteratzeko prozesuei eta birgizarteratzeko neurriei laguntzea.

4. Udalekiko lankidetzak

4.1 Helburu nagusia

Bakea betiko eta atzera bueltarik gabe sendotzen laguntzea, gizarte bizikidetzak bideratzen laguntzea eta Gipuzkoako kultura demokratikoan sakontzen laguntzea, lurraldeko gizartean Giza Eskubideen ezagutza eta begirune kultura sustatzea.

4.2 Sei lehentasunezko sustapen eremu

Sei ardatz ezartzen dira, Foru Aldundiaren eta udalen arteko lankidetzak sustatzeko.

I. Udalean ordezkariak duten sentsibilitate ezberdinen arteko elkarbizitza eta akordioa sustatzea.

II. Bizikidetzak anitzeko foroak eta esperientziak sustatzea.

Bizikidetzak foroak eta esperientziak sustatzea eta laguntzea sentsibilitate plurala duten pertsonen artean, baita ekimen edo jarduketak puntualak udal esparruan bizikidetzaren kontziliazioak sustatzeko.

III. Giza eskubideen gizarte hezkuntzan ekimenak sustatzea.

Udal esparruan giza eskubideak sustatzeko ekimenak bultzatu eta laguntzea, bereziki gizarte heziketarako ekimenak bakearen kultura eta giza eskubideen alde.

IV. Udaletatik biktimen laguntza indartzea.

Tokiko azterketa egitea eraildako biktimen familien egoerari eta beharrei buruz, gero ondorioak atera eta udalak, dagozkion eskumenen barruan, zein jarduketak garatu ditzaken aztertu ahal izateko.



V. Udal eremuan memoriaren politika garatzea.

Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Memoriaren Mapari buruzko dokumentuari gomendioak egitea, eta urtero azaroaren 10ean terrorismo, indarkeria eta giza eskubideen urraketaren biktimen Memoriaren Eguna dela eta erakunde ekitaldia egitea, batasun eta adostasun politikoarekin.

VI. Gizarteratze prozesuetan laguntzea.

Presoen gizarteratze prozesuei babesa ematea, laguntza eta asistentzia neurrien bidez, betiere udalen laguntza eskumenen barruan eta Eusko Jaurlaritzak sustatzen dituen programei jarraiki.

4.3 Bi lan ildo

Gipuzkoako udalerrien errealitate ugarietatik abiatu gara. Udal eremuan bizikidetzaren beharra berbera da leku guztietan, baina aukerak, adostasun politikoak eta errealitateak desberdinak dira herritik herrira. Hori dela eta, lankidetzaren bi lan ildotan zabaltzea proposatzen dugu, udalerrri bakoitzak egokien deritzonari heltzeko.

- Diru laguntza deialdiak

Foru Aldundiak jarraipena emango dio aurreko legealdian abiarazitako diru laguntzei, baina urteko ekintza-plana aurkezten duten udalei bakarrik zuzenduko zaie, baldin eta ezarritako sei eremuetatik lehenengoa modu jarraitu batean garatzen badute.

- Foru inplikazioa udalerrian

Planak garatzeko asmorik ez duten udalei dagokionez, Foru Aldundia, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideetako zuzendaritzaren bitartez, prest dago udalerririk horretan bere kabuz ekintza puntualak garatzeko.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

4.4 2017ko aurrekontua

Gipuzkoako Foru Aldundiak 290.000 euro bideratuko ditu bakerako bizikidetzara, eta horietatik 210.000 euro diru laguntza deialdira.